

ZOKKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea, zozketaren eremua eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean, LABORAL Kutxa; helbide soziala: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g., 20500 Arrasate (Gipuzkoa)— zozketa bidezko sustapena egingo du. Hain zuzen, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan artista grafitigileekin elkarlanean jarduteko aukera bana eta 300 € zozkatuko dira LABORAL Kutxaren 18 eta 30 urte bitarteko bezeroen artean. Sustapena 2017ko azaroaren 3tik 17ra bitartean egongo da indarrean.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Sustapenak irauten duen bitartean, Instagramen euren probintziako grafiti baten argazkia jartzen duten 18 eta 30 urte bitarteko LABORAL Kutxaren bezeroek hartuko dute parte zozketan. Argazkiarekin batera kanpainako #graffitiLK hashtaga eta probintziako hashtaga (adibidez, #bizkaia) jarri eta @laboral_kutxa aipatu behar dituzte parte-hartzaileek. Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

4.- Zozketaren datak

2017ko azaroaren 20an zozkatuko dira Hego Euskal Herriko hiriburu bakoitzean artista grafitigile batekin elkarlanean jarduteko aukera bana eta 300 €, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Hona hemen bete beharreko baldintzak:

- Instagramen beren probintziako grafiti baten argazkia jartzea, kanpainako #graffitiLK hashtaga eta probintziako hashtaga (adibidez, #bizkaia) jarri eta @laboral_kutxa aipatuz.

5.- Irabazleak

NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango zozketan, eta LABORAL Kutxaren bezero irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

Irabazleek salbuetsi egiten dute LABORAL Kutxa sariaz gozatzean izan lezaketen edozein kaltetatik.

Entitatea Instagramen bidez jarriko da harremanetan irabazleekin, telefono bat eskatuko die eta bide hori erabiliko du haiekin komunikatzeko. Artistarekin elkarlanean jarduteko sariaren irabazlea, agertzen denean, harremanetan jarriko da harekin, elkartuko diren eguna eta ordua adosteko.

Bestalde, 300 euroen irabazleak LABORAL Kutxako bere kontuan jasoko du sariaren zenbatekoa, entitatea berarekin harremanetan jarritakoan.

6.- Sariaren fiskalitatea

LABORAL Kutxak ez du sariaren eragin fiskala bere gain hartuko; egotekotan, irabazlearen kontura izango da.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, bere izen-abizenak argitaratzeko baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Irabazleak bere izen-abizenak argitaratzeko baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea.

